

EUSKAL SINESKERAK (I)



JUAN MANUEL ETXEBARRIA

JUAN MANUEL ETXEBARRIA

**EUSKAL
SINESKERAK
(I)**

IBAIZABAL

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura eta Turismo sailaren
laguntza jaso dau

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Marrazkilaria: Arrastalu

Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, - Deusto-Bilbao

I. S. B. N.: 84-86399-06-8

Deposito Legal: BI - 2.561 - 89

Argitaratzailea: I. K. A., Euba. Tnoak: 673 42 46.

Argitaletxea: Ibaizabal - 145

AURRE-BERBAK

Idazten danean, beti egiten da zeozergaitik, zeozertarako eta baten batentzat.

Azkenengo hamarkada biotan, etorkizuneko euskera batuaren atea zabaldu da, ate estua, eta danok eroan gura gaitue ate eta ate-oste estu horretarik zehar.

Atzera begiratzen badogu, hor be baditugu beste ate batzuk, zabalak, erosoak eta belaunaldiz belaunaldi herriak bere galbahetik eralgitakoak.

Etorkizuneko atea zabaltze horrek ez dau lehengo aterik zarratu behar, zabalik euki eta behar dan guztia etorkizunera bideratu baiño.

Hortixik goaz oraingo honetan. Aurrean dituzun ipuinok, herri-herrikoak jatzuz, aberastasunez beteak, bizi biziak eta edozeinek irakurtzekoak ipuin bakoitzaren atzeko hiztegiak lagun.

Euskaldunen espazio kulturala, euskera barruan dala, zabala eta aberatsa izan dogu. Honeetan ipuinotan, beren beregi jo deusut espazio zabal horretako gure EUSKAL SINESKERA zaharretara, gu geu be, beste herri batzuk baino gitxiago ez garalako.

Euskera aldetik, Bizkaiera gaurkotuaz natorkizu, Bizkaiera aberatsa dalako eta Bizkaierari zor deusagulako gurasoengandik hartu dogun hagea.

Bizkaia Euskadi bada, Bizkaiera euskera da eta Bizkaieraren ateak ez dau ezelan be batuarena zarratzen, nasaitu eta osotzen lagundu baino.


Euskeraren etxe zaharrea, han, hor, hemengo euskaldunak bizi gara eta etorkizunari begira ezin dogu betiko etxe zaharra bota eta barria egin, zutik dagoela berriztatu baino. Bizkaierak, sakontasunean ezagutuz gero, hainbat et hainbat gauza eder dauka barritze horretarako. Aikomen batzuk ipuinotan. Irakurri, gozatu eta BIZI euskera bizia batasunaren bidean.

«Zahar on egin daitela»

Olagizonak

Euskera ederra egiten dan herri txiki baten, Simon izeneko gizon zintzo, alai eta on bat bizi zan. Ni, bere auzoan bizi nintzan eta beste egun askotan legez, ikastolatik urten orduan, etxerantzean amari errekaduak egin, etxera etorri, iturriko ura ekarri, ogia eta gaztaia hartu eta Simonen etxera joan nintzan.

Han egoan Simon sutondoan suginen eta beti lez berba gura, bere betiko irribarrearekin. Ezarri naiakon bere ondoan eta hazitarako artagarau batzuk garanduten eragoiola badiñost:



—Manu, ba zatoz gaur ere! Ikusten dozunez gaur hemen nabil supazterrean artoak garandu eta artoak garandu eta bide batez ipuin bat kontatu behar deusut, bai, neuri aititak kontatutako ipuin bat. Badakit asko ere asko gustatuko jatzuna, ikusiko dozu.

Behin baten, Euskadiko herritxu baten gizon aberats bat bizi zan. Diruduna jatzun baina herrikoentzat gogorre-gia, harroa eta diruzalea. Eta egun baten OLA barri bat egiten hasi zan.

—Simon, zer da OLA? —esan neutson.

—Ba, gaur egun labe handiak dagoz baina lehenago burdina urtu eta lantzeko OLAK egozan eta bertako langileak «olagizonak» ziran. Bai, eta garai haretan Euskadin OLA asko ere askoegozan egon ere. Gaur gehienak jausi edo apurturik daukaguz, egon ziran tokiko izena bakarrik geratzen jakula; esate baterako: Olabarri, Olazar, Olatxu...

Eta gizon aberats horrek OLA barria egiten amaitu ebanean martxan botatzen joan zan bere ola-gizonekin baina ahalegin guztiak ginda ere ezelan ere ezin bota martxan.

Orduan ola-gizon batek apal apalik esan eutson goiak eta beheak joten egoan OLAREN ugazabari:

—Bada ezpadan, zergaitik ez dau bialtzen Berorrek baten bat ANBOTOKO SEÑOREAREngana, hemen jazo-tzen danaren barri eskatzen?

Ugazabak orduan, sudurrari batera eta bestera eginaz, bere morroi bat bialdu eban ANBOTOKO SEÑOREA-rengana.

—Simon, parkatu, baina nor jatzu ba ANBOTOKO SEÑOREA —galdetu neutson.

A!, bai, zu txikia zara eta ez dakizu, baina ANBOTOKO SEÑOREA, esaten daben legez, Jesukristo jaio aurreko pertsonai bat ei zan. Andra galanta, gorriz jantzita ibilten ei zan «garrretan» leza batetik bestera batez ere gaba-iluntzetan. Zazpi urte egiten ei ebazan Anboton, beste zazpi urte Gorbea ondoko Supilaur koban eta beste zazpi urte itxasoan. Eta asko joaten ei jakozan konsulta eskatzen baina lezara aurrerantz sartu eta atzerantz urten behar izaten zan, bestela betiko barruan geratzen ei ziran. Baina, Jesukristo jaio zanean Anbotoko Señoreak podere guztiak galdu ebazan eta Jesukristoren ezaugarririk ezin eban euki bere lezan. Baina euskaldun batzuk Jesukristogan sinistu arren, ohiturak galtzea sarritan ez da erreza eta, bada ezpadan konsultatzen joaten ziran.

Ugazabak bialdu eban morroia, Supilaur kobara heldu zan eta barrura sartu zanean, Anbotoko Señorea goruetan aurkitu eban, herri zekorra ondoan etzunda eukala inguruko mahai eder eta beste ikaragarritzko gauza askoren artean.

Erdi itsuturik egoan morroia eta ez ekian zer egin ez zer esan. Baiña halakoren baten Anbotoko Señoreak goruetari utzi eta zilarrezko balda batetik sagardoz betetako pitxar bat eta urre gorritzko basu bi atera ebazan harri lanluzko mahaira eta esan eutson morroiari:

—Ezarri eta edan nahi dozun guztia ezta ez hadi bildurtu; hilako asko etorri dok hemendik eta bakoitzak berea zainduz ondo konpondu gozak.

Orduan gure morroiak, ohitura zan legez, edan aurretik «Jesus» esan eta gosunea egiterainoko tragu eder bat egin eban eta Anbotoko Señoreak esan eutson:

—Zertan hator ba? Nork bialdu hau nigana?

—Ba, ugazabak bialdu nau berorregana konsulta bat egiteko. Nire ugazabak OLA barri bat egin dau eta ezin dau martxan bota ezelan ere, egin ahalak egin da ere ez.

—Bai, badakit zer jazotzen dan —erantzun eutson «Anbotoko Señoreak»—. OLA barri hori deabruak jaukak loturik eta martxan jarri nahi badozue, urlri lekutako komentoko superiorrak bedeinkatu egin behar jok OLA hori. Eta esan egiok hire ugazabari, nik esana egiten bajok OLA barri hori martxan hasiko dala.

—Eskerrik asko danagaitik eta beste baterarte —esan eutson morroiak.

—Itxaron, erantzun eutson Anbotoko Señoreak. Hori basu hori eroan hegik heugaz, hemen uzten badok, lehen txarto egon banok horregaz txarrago egongo nok eta.

—Baina hau basu hau berorrena da —esan eutson morroiak ikaraturik.

—Bai, bajakiat, baina hik sagardoa edan aurretik

«Jesus» esanez bedeinkatu egin dok eta eroan heik lehen bait lehen.

Orduan morroiak atzerantz urten eban lezatic urre gorritzko basu eta guzti eta arin baino arinago joian etxerantz, entzun eta ikusitako guztiaz berbaltuak urten eginik.

Bidean, joanean-joanean, gauza asko ikusi ebazan: goietan artzainak ardiak zaintzen, pagadietan ikazginak ikatza egosten gero oletan burdina lantzeko, gaztainudietan berritarrak gaztaina batzen eta kirikiñusietan gordetzen urtean zehar jan edo saltzeko, beresietan egurginak negurako egurra gertatzen, eta ez dakit zenbat gauza gehiago... baina ez eukan barriketarako astirik ez gogorik eta arnasestu ikaigarri batez heldu zan OLA aurreko gizon artera.

Bihotzeko taupadak eta arnasestua lasaitu jakozanean, entzun, ikusi eta bizitako guztia kontatu eutsen eta sinistu ezinda geratu jakozan, baina urre gorritzko basua ikusi ebanean ez eukan dudarik.

Ugazabak orduan bere zalburdirik onena eta zaldirik bizkorrenak, harturik, urlri lekuko komentora joan zan.

Komentoko superiorrak, jazotako guztia entzun ebanean, danari utzi eta eleiz jantziak harturik arin ere arin joan zan zalburdira eta baetozen OLA barrirantz.

Bien bitartean, herri guztia alkartu zan OLA barriaren aurrean baina danak ikaraturik, bata bestea baino larriago, ahorik askatu barik, baekien OLA barri haretan parte txarrekoak egozala eta.

Halakoren baten heldu zan superiora eta zalburdi gai-
netik hasi zan esaten: «Ez bildurtu! Bedeinkazinoa bota-
tzen dodanean ikaragarritzko zarata bat entzungo dozue,
baina barrero dinot ez bildurtu!

Superiorak orduan, eleiz erropak jantzi, beso biak jaso
eta otoitz batzuk egin ondoren, bedeinkatu eban OLA
barria eta: Brum! Braum! Trum! Traum! Burrrundada
ikaragarri batez urten eban deabruak eta une haretatik
aurrera: Trikitin! Traukitin! Trikitin! Traukitin! ondo
baino hobeto ebilen OLA barria.

Ugazabak, ikusiak ikusita eta entzunak entzunda,
aurrean eukan herri guztiaren aurrean hiru lau berba esan
ebazan erdi negarrez: «Orain arte, herritarrok, ez naiatzue
lagun ona izan, baina hemendik aurrera herriagaitik lan
egiteko prest nago eta ohostu deutsuedana erreituekin
emongo deusuet. Gainera, zuetariko baten bat lan barik
aurkitzen bada, etorri daitela OLA barrira».

Eta halantxe izan zan. Ordutik hona herriko guztiak
poz pozik bizi ziran alkartasunean.

Ni, Simoni begira egon nintzan denbora guztian eta
ipaina amaitu eustanean pozik baino pozago joan nintzan
etxera.

Hurrengo egunean ikastolara heldu nintzanean, Ander
nire irakasleari kontatu neutson Simonek kontatutako
ipaina eta kontatzen amaitu nebanean begi biak zabaldu
jakozan eta esan eustan: «Nork kontatu deus hori ipuin
hori? Ipuin hori polita eta interesgarria da benetan eus-


kaldunen bizitza ezagutzeko. Gaur euskerako klasean ume guztien aurrean kontatu behar dozu ipuin hori eta etxera joaten zaranean galdetu eiozu kontatu deutsunari honelako edo antzerako ipuin gehiago dakian».

Nik, Ander irakaslearen esana jarraitu neban eta ahal nebazan ipuin guztiak batu nebazan. Gaztetxua nintzanean Ander irakasleak berak laguntzen eustan idazten baina nagusiagoa nazenik eta hona neuk idazten ditut irakaslearen esaera bat gogoratuz: «Idazten ez dana biziarekin doa, idazten dana barriz, hemen geratzen da etorkizunerako».



Ahorik askatu barik: Hitzik egin barik.
Arnasestua: Arnasa arin eta sarri hartzea.
Arin baino arinago: Oso arin.
Arin ere arin: Oso arin.
Arnasestu: Arnasa arin hartu.
Baten bat: Norbait.
Berba gura: Berba giteko gogoia.
Berbaltua: Tartamutu egitea.
Beresi: Berez hasten diran basoak.
Burrundada: Zarata handia.
Dau: Dozu (bererika).
Egurgin: Egurra gertatzen dauana.
Etzun: Etzan.
Eragoiola: Ekiten eutsala, eutsan bitartean.
Erreitu: Interesak.
Etorkizuna: Gerokoa.
Ezarri: Jezarri, jarri.
Gaba-iluntzetan: Ilunabarrean, gaulendian.
Garretan: Txispak botatzen.
Gaztainudi: Gaztainak dagozan basoa.
Goiak eta beheak jo: Haserre egon.
Goietan: Mendietan.
Goruetan: Haria egiten.
Gosunea: Arin edakeran, irentsi ezinaren mina.
Gozak: Gaituk-gara (zuka).
Harri landua: Tallatua.
Hazitarako: Ereiteko hazia.

Herri zekorra: Euskadiko basa-zekor gorria.
Iatzun: Zan (zuri).
Ikazgina: Ikatza egiten dauana.
Jatzu: Da.
Joanean Joanean: Bidean doala.
Kirikiño: Gaztaina garauen gaineko azala.
Kirikiñusi: Kirikiñoak batzeko tokia.
Lan barik: Behar barik.
Leza: Koba.
Loturik: Geraturik.
Naiakon: Nintzan (berari).
Naiatzue: Naiz (zuei).
Ola: Antzina burdina urtu eta lantzen zan lantegia.
Ola-gizonak: Oletako langileak.
Ondo baino hobeto: Oso ondo.
Pagadi: Pagoak dagozan basoa.
Parte txarrekoak: Deabruak.
Podere: Indar.
Suginen: Sua egiten.
Supaztarrean: Sutondoan.
Sutondoan: Suaren ondoan.
Taupada: Bihotzeko odolaren golpeak.
Urli: Pertsonetan: fulano, hemen: urli lekutako: ez dakit zein lekutako.
Zalburdi: Zaldidun burdia.
Zilarra: Urre zuria.
Zintzo: Jator, on.



Mari garretan kobarik koba

Anbotoko señoarearen sorrera edo jatorria, batek badaki, zein dan. Dakigun apurra liburuetatik dakigu alde batetik eta herritarrengandik bestetik. Ni neu, ibili be banabil baserririk baserri ipuin bila eta hona hemen Gorceia inguruko aitita batek kontatutakoa Antoboko Señoarearen sorreraz.

«Jesukristo jaio baino urte asko lehenago, Bizkaiko baserritxu zahar baten ama-alaba bi bizi ziran. Ama behargina jatzun eta egun guztian zehar lan eta lan ebilen bere etxe inguruko solo eta mendietan. Alabea ostera alper-al-

perra zan eta lan asko egiteko euki arren orrazia hartu eta bere buruko ule gorriak orraztu eta orraztu igaroten ebazan egunaren ordu guztiak eta iluntzean beti legez lanak egin barik.

Ama ona baino hobe zana baina egunero ekintza bardingetan lanaren lanaz, guztiz nekaturik ebilen, hezurrak lokatuta, buruko min kendubakoarekin eta ezertarako gogo barik lan guztia bertzat zalako.

Egun baten, beti legez, eguneroko lana amaitu ta gero heldu zan etxera eta bere alabea lanak egiten barik, orraztu eta orraztu ikusi ebanean, pazientziatik urtenda eta odolak ur eginda, maldizio bat bota eutson esanez: «Alaba alperra eta bihotz gogorra, joan hadi nire etxetik gutxienez Anbotoko lezara eta ez hadi etorri gehiago. Ez dona ezertarako be balio, ez deustana ezer egiten eta joan hadi nire begien bistatik, bestela hementxe birrinduko haunat».

Esan baeban ze, ama-alabak betiko banandu ziran. Ama etxean geratu zan eta alabea maldizioaren indarrez garrretan! joan zan Anbotoko lezara eta helduaz batera «ANBOTOKO SEÑOREA» bihurtu zan.

Bakar bakarrik egoan leza barruan. Gaba luze egin jakon. Egunsentia heldu zanean jan bila joan zan Anbotoko haitz bitarterik haitz bitarte eta harrapatu ahal izaten ebazan muskerrak eta, gordin gordinik jaten ebazan.

Bakar bakarrik egongo zalakotan egoan baina ez zan egon luzaro bakarrik. Inguruetako artzainak, neska ule gorri galanta ikusi ebanean lezara urreratzen jakozan eta

ondora heldu eta halako neska ikusgarria, bakarrik eta ezer ere barik egoala ikusirik, joan euren txaboletara eta danetarik eroaten eutsen, harik eta emendatu arte.

Gaur gauza bat bihar beste bat, apurka-apurka hutsik egoan leza, ederto apaindu eban eta ezer falta barik bizi zan. Jente asko joaten jakon ikustera eta konsejua eskatzera.

Urteak joan urteak etorri, ama, bere alabarekin gogoratu zan eta aspalditik alabaren barri barik egoan legez, Anbotorantz abiatu zan zorotz eginez zer zan edo zer ez zan jakiten.

Anbotora heldu zanean eta bere alaba hain ondo ikusi, beste maldizio bat bota eutson esanez:

Kanpora hemendik! Hemen ondoegi bizi haiz eta joan hodi Gorbeako lezara, ez haunat ikusi gura inoren kontura bizitzen eta!

Orduan «Anbotoko Señoreak» amaren esana bete eban eta garrretan; joan zan Gorbea ondoko Supilaur kobara. Gabaz heldu zan. Koba handia zan benetan. Koba aurrean egon zan luzaroan eta inguru guztietara begiratu arren ez eban ez entzun ez ikusten ezer. Zelan ikusiko eban ba, inguruetakoko artzain eta nakazariak, garretan etorri zan «Señorea» ikusi orduan, bildurkilik egozan euren txabola eta etxeetan eta.

Hurrengo egunean Supilaur koba aurrean jende asko alkartu zan eta neska haren edertasuna ikustean ahoa za-



balik eta adurra dariola egoan jende guztia. Neska galanta benetan! Baina koba barrua ezer ere barik ikusi ondoren, artzain eta nekazari guztiak arineketan joan ziran bakoitza bere etxe eta txabolara eta danen arte Supilaur koba ontziz, tresnaz, jantziz, janariz eta edariz bete eben. Ha zan sugertea! «Anbotoko Semorea» Anboton baino hobeto bizi jakun. Ez eukan lagun faltarik. Geroago eta jende gehiago joaten jakon konsultatzera.

Ama enteratu zanean bere alaba lehen baino hobeto bizi zala pausurik galdu barik, Supilaurrera joan jakon eta hango handitasuna ta edertasuna ikustean, beste maldizio bat bota eutson esanez:

«Joan hadi barriro Anbotora. Supilaur koban bizi haizenik eta hona herrian askoz txarrago bizi gozana eta heure erruz gagoxak larritasunez beterik; horregaitik ba, joan hadi lehen baino lehen Anbotora».

«Anbotoko Señorea», birritan pentsau barik Anbotora joan zan barriro dana bertanbera utzirik, eta harrezkero euskaldun zaharrak iñoenez, garrurretan eta txispotsean ibiltzen ei zan lezarik leza gaba-iluntzetan, harik eta, anega bat indabak garautan daukan beste urte betatu arte.

Gizaldiak joan gizaldiak etorri, Euskalerriko biztanleek Jesukristoren jaiotza ezagutu eben. Euskalerria apurka-apurka komentoz eta eleizaz bete zan eta harrezkero, zelan zabaldu eta onartu Jesukristoren Barri Ona, halan eskastu «Anbotoko Señoarenganako» joera.

Eleiz-gizon asko eta asko sortu zan Euskalerrian

zehir eta Jesukristo jaio aurreko siniskerak galduz-galduz joiazan.

«Anboto Señorea» bakar bakarrik geratu zan. Jendeak konsultazera joateari utzi eutson. Halan eta guztiz ere, ohiturak galdu ez egitearren banakaren bat joaten jakon konsulta eskatzen, baina kontuz ibili behar izaten ei zan.

Jesukristo jaio zanetik ez eban onartzen kristau ezau-garririk eta bere lezan aurrerantz sartu eta atzerantz urten behar izaten zan.

«Anbotoko Señorea» podere handiko andrea zan Kris-to-aurrekoentzat baina Jesukristo jaio zanetik eta hona podere barik geratu zan.

Jesukristo egiazkoa da, «Anbotoko Señorea» ostera ez zan izan egiazkoa, mito-siniskera bat baino.

Jesukristo nagusi egin zan Euskalerrian eta gora-behera handiak egon arren, nortasuna galdu barik etorri da gaur arte. Jesukristoren irakatsiak jarraituz ez ete gara gauza Euskalerra baketsu eta maitasunezko bat egiteko?



Abiatu: Joan.
Anega: 55 kilo (aldakorra da).
Banakaren bat: Bat edo beste.
Barri ona: Ebanjelioa.
Batek badaki: Auskalo.
Betatu: Bete.
Bildurkilik: Bildur askorekin.
Birritan: Bi bider.
Dariola: Jausten.
Deustana: Deustazu (zuka, femeninoa)
Dona: Dozu (zuka, femeninoa).
Egusentia: Egunaren hasiera.
Emendatu: Bete, asetu.
Esana: Agindua.
Gizaldi: 100 urte.
Gordinik: Egosi barik.
Gozana: Gara (zuka, femeninoa).
Harrezkero: Ordutik ona.

Haunat: Zaitut (zuka, femeninoa).
Helduaz batera: Heldu ta arin.
Jatzun: Zan (zuri).
Lan eta lan: Behar ta behar.
Lanaren lanaz: Lan askorekin.
Lehen baino lehen: Oso arin.
Luzaroan: Denbora askotan.
Nekazari: Lurra lantzen dauana.
Nortasuna: Norbera izatea.
Odolak uregin: Oso haserre.
Ona baino hobea: Oso ona, sano ona.
Pazientzatik urtenda: Pazientzia galduta.
Sorots egin: Espiatu.
Txispotsean: Txispak botatzen.
Urteak joan urteak etorri: Denborea pasatu.

Basajaunak eta kanpaiotsa

Udako egun eder baten aitita eta biok Bizkaiko Gorbea deritxon mendirik handienera joan ginan.

Bidea luzea zan baina igonago eta pozago gengoan inguruetako herriak eta mendiak ikusten; aitita pozik niri dana azaltzen eta ni pozago berak esaten eustana entzuten.

Joan eta joan Gorbeako tontorrera heldu ginan. Ze pizik! Zelako ikuspegia! Ia, ia, Bizkaia osoa ikusten zan.

Hamarretakoa egin ondoren, beherantz gentoan astiro-astiro inguruetara begira. Nik dana jakin nahi neban eta dana nintzan itauna.

—Aitita, han ezkerretara lainaberearen gainetik da-
goan haitz luzea zein da? —galdetu neutsan—.

—Lekandako haitza da. Eta han beheragoan koba
handi bat dago. Supilaiur izenekoa eta han basajaunak ego-
ten ei ziran.

—Nortzuk jatzuz ba BASAJAUNAK? —esan neu-
tsan—.

—Bai, BASAJAUNAK, Jesukristo jaio aurreko gizon
handi-handi batzuk ei ziran. Bildurgarriak. Gehienetan ga-
baz ibilten ei ziran eta herritarrak bildur handia izaten ei
eutsien. Indartsuak ei ziran eta harri bola handiekin bolan
egiten ei eben mendi batetik bestera. Baina Jesukristo jaio
zanetik eta hona ez daukie podererik eta basajaunik han-
diena ikusi arren ere, Jesukristoren ezaugarri bat agertuz
gero ezin deutsue kalterik egin.

Basajaunak Euskalerriko leza askotan egoten ei ziran.
Eta lehentxuago esan deutsudan legez, Supilaur koban ere
ei egozan eta nire aitag kontatu eustan ipuin bat gogoratu
jat eta joanean-joanean kontatu egingo deutsut.

«Egun baten neba-arreba bi ei egozan Supilaur ondoan
ardiak zaintzen. Egun ederra egoan, ez bero ez hotz, eta
iluntza aurretxean eguzkia sartzamendian egoala, mutilak
suge handi bat ikusi eban eta sugearen atzean joan zan
arrebea ardiekin itzirik eta konturatu barik lezara barrura
sartu zan.

Lezako iluntasunean ez eban ezer ikusten eta sugea es-
taldu egin jakon nonbaiten. Sugea bila aurrera eta aurrera,

halakoren baten suaren antzerako zerbait ikusi eban leza sakonean. Kontuz-kontuz hurreratu zan eta basajaun bat ikatz egosten ikusi eban. Ikaratu egin zan eta ez ekian zer egin. Ha zan gizontzarra! Hak eukan itxurea! Hak eukazan eskutzarrak! Hak eukan indarra! Mendia lako ikatz txondorra eukan aurrean eta ikatza egosi eta ikatza egosi eragoion...

Mutila, basajaunak ez ikusteko, kontuz-kontuz harri baten atzean estaldu zan, baina alperrik; basajaunak ikusi egin eban eta esan eutsan:

—Hire aitak honelako ikatzik egosten jok?

—Ez dakit ba —erantzun eutsan mutilak—; erakusten ez badeustazu zelan jakingo dot ba?

—Hartu gura dana eta eroan argitara eta ikusi. Gero etorri barrero ia zer deritxan esaten.

Mutilak ezer ere ez eutsala egin ikusirik, esku barruak bete ikatz hartu eta arineketan joan zan bere arrebearengana.

—Zer dakak eskuetan? —esan eutsan arrebeak—.

—Ba, hor barruan dagoan basajaun handi batek ikatza dala esan jostana eta argitan ikusteko, zer uste dona?

—Ikatza! Zer dinostak? Hau ez dok ikatza, urre gorria baino.



—Zergaitik ez deitsak gehiago eskatzen? Joan hadi arin, ilundu baino lehen eta aberatsak izango gozak.

Mutila, urre gorriaren pozarekin joan zan lezara eta esan eutsan basajaunari:

—Ba, nire aitak ez dau honelako ikatzik egosten. Emongo deustazu apur bat gehiago?

—Bai —erantzun eutsan—; hartu zenbat gura eta harrexen beste baina kontuz! Hor barruan lo jagok «BASA-JAUNZAR» gure nagusia eta ia gaba jatok eta laster iratzartu egingo dok eta hemen ikusten bahau, galdua haiz; horregaitik ba zaratarik egiten ez badok hobeto.

Mutilak urre gorria baino ez eukan gogoan eta zarata ardura barik hasi zan poltsak eta kolkoa urre gorritz betetzen baina hartu beharraren hartu beharraz zarata handia atera eban eta Basajaunzar iratzartu egin jakon.

Orduan mutilak bere burua galdurik ikusi ebanean, arineketan hasi zan eta inoiz baino arinago joian bere arrebeari ezer esateko asti barik eta Basajaunzar, mutilaren atzean. Sagua eta katua zirudien.

Mutilak inguruetako mendiak ondo ezagutzen ebazan baina larriturik joian pagaperik pagape norantz joian pentsatzeko asti barik.

Joan eta joan, gaba iluna heldu zan eta hilargiaren argia baino ez egoan.

Mutila nekatuz joian eta Basajaunzar osterara arinago etorkionez atzerikara, geroago eta hurrago ikusten eban. Indar guztiak aterata ere ezin eban gehiago. Handik lasterrera, pausua galdu barik atzera begiratu eban eta Basajaunzar ia bere gainean eukala kontaratu zan. Ha zan larrialdia! Ha zan bildurra! Ha zan gauaroa!

Gure artzain gaztea adore barik eta indarga joian. Hurrengo tontortxura heldu zanean eta Basajaunzarren esku-tzarra gainetu einan eukanean «tin-tin, tin-tin, tin-tin»... , eliza bateko kanpaia entzun zan eta kanpai hotsa entzutean Basajaunzarrek gelditu egin behar, podere barik geratu zalako eleizarako deiaren ezaugarriaren aurrean. Mutila osterara sinistu ezinik egoan, baina bere burua libre ikusi ebanean urre gorria poz-pozik laztanduz gora-goraka hasi zan.

Basajaunzarrek mutila saltoka ikusi ebanean eta berak ezin ezer egin, maldizio bat bota eutsan esanez: «Hire etxean ez dok faltako ezbeharrik».

Eta esaten dabe halantxe jazo ei zala; mutilaren etxean hiru anaia hil zirala bata bestearen atzean.

—Aitita, baina, hori egia ete da ba? —galdetu neutsan arduraturik—.

—Ez! Zelan izango da ba egia? Hori ipuin bat baino ez da. Baina guk sinistu ez arren, aintzinakoak sinisten eben holako gauzetan eta ezbehar bat jazoten zanean beti etorten jaken burura holako konturen bat. Gaur osterara zeozer jazoten danean, gitxi gora behera badakigu zergaitik dan, argitasun gehiago daukagulako.

Bai, mundua aurrera doa eta egunean-egunean gehiago dakigu, baina jakituria, onerako danean ona da baina txarrerako danean azkena.

Bai, aititak errezoia eukan; batak besteari on egiteko jakituria da onena. Onerako beti lan egingo begendu... hori bai edertasuna!



Adorea: Alimua.
Argitara: Argia dagoan lekura.
Argitasun: Jakituria.
Asti: Denbora.
Atzerikara: Atze aldetik.
Deritxan: Deritxazun (zuka).
Deritxazun: Uste dozun.
Deritxon: Deitzen dan.
Diñostak: Dinostazu (zuka).
Eragoion: Ekiten eutsan.
Estaldu: Galdu.
Ezaugarri: Seinale.
Ezbeharra: Desgrazia.
Gainetu einean: Ia-ia gainean.
Galdua zara: Galduta zagoz.
Gauaroa: Gabeko denbora.
Gizontzarra: Gizon handia.
Gora-goraka: Saltoka.
Gozak: Gaituk, Gara (zuka).
Ikaratu: Bildurту.

Ikatx txondorra: Ikatza egiteko egi-
ten dan egur piloa.
Ikatza egosi: Ikatza egin.
Ikuspegi: Inguru polita.
Ilundu: Gaua heldu.
Indarga: Indar barik.
Jatzuz: Dira.
Jazoten: Pasatzen.
joanean-joanean: Bidean doala.
Kanpai-hotsa: Kanpaiaren doinua.
Lainabera: Belainoa.
Laztandu: Eskuetan erabili.
Leza: Koba.
Nekatu: Kantsatu.
Pagaperik-pagape: Pagopetatik.
Sartzamendia: Eguzkia sartzen dan
lekua.
Zenbat gura eta harexen beste:
Nahi dan guztia.
Zirudien: Antza eukien.

Tartalo artzain greziarra

Euskal Herriko koba baten Grezia ingurutik etorritako gizon handi eta begi bakar bat bizi ei zan. TARTALO jakon izena eta artzaina zan baina artzain berezia: bere txabolara joaten ziran pertsonak hil eta burduntzian erreta jaten ebazan, horregaitik ez jakinean joaten ziranak izan ezik ez zan inor joaten beragana. Oso txarra zan eta inguruko artzainei ardiak ohostuten eutsezan baina ez zan inor ausartzen beragana joaten baekien beragaz bizirik ez ebela urtengo eta. Egunez kanpotik ibiltzen zan eta gabaz koba barruan eta kobako atetzat ikaragarritzko harri bat eukan, hogeï gizonek mobidu ez egiteko modukoa.

Herri haretako baserri polit baten PERUTXU bizi zan bere guraso eta aitite-amamekin. Txikia zan baina bizkorra,

dana jakin gurakoa. Etxekoak esaten eutsien Tartaloren kobarantz ez hurreratzeko bestela bere biziak egin dauala.

Baina Perutxu, etxekoak ez ekiela, Tartaloren kobarantz joan zan. Bildur handia eukan baina halan eta guztiz ere aurrera egin eban.

Joan eta joan halakoren baten koba handi bat ikusi eban eta harri handi bat kobearen atakako harratean.

Badaezpadan inguru guztietara begiratu eban atzerikara edo alborikara batenbat etorrian be eta inor ez egoala ikusirik kobara barrura joan zan.

Koba barruan su handi bat egoan, egur eta idazko ohe bat, ardi narruak eskegita, burdinazko burduntzi handi bat, metroko kutxillo batzuk otzara batzuk bete mahats azpitik ardoa dariola eta behesuaren gaineko zulo baten urre gorrizko eraztun bat brillutan.

Perutxu ikaraturik egoan eta ikusiak ikusita kanpora urten eta badaezpada etxera joatera pentsatu eban.

Kanporantz joiala Tartalo heldu jakon bere artaldearekin eta Perutxu arineketan joan arren Tartalok bere esku handi eta indartsuez Perutxu harrapatu eta kobara barrura eroan eban. Harri handiarekin koba itxi eban eta ez egoan handik urteterik.

Perutxu larri baino larriago egoan eta Tartalo ostera pozik baino pozago. Suari egur gehiago bota, egurrezko ohepetik gizon bat atera, burduntzian sartu eta afaria gertatzen hasi zan eta esan eutsan Perutxuri:

—Ja, ja, ja! Hau gaur gaberako. Bihar eguerdirako beste bat jaukat eta hi bihar gabean afaltzeko!

Ha zan larritasuna! Urten gura ta ezin! Tartalok gizona jaten eban bitartean Perutxuk zelan eskapatu baino ez eban pentsatsen.

Tartalok afaiten amaitu ebanean esan eutsan Perutxuri:

—Nik badaezpadan ate ondoan egingo joat lo eta hik nire egurrezko ohean egingo deustak heure bizitzako azkenengo gaba, ja, ja, ja!

Perutxu, buru-arina ez zanez, ibili eta ibili, mahatsotzarak hartu eta ostikopetan birrindurik ardoa egin entsan eta edaten emon Tartalori harik eta katutu arte.

Tartalo arin hartu eban loak eta haren arrantzak trumoia lakoak ziran. Perutxuk ezin eban lorik egin bere bizitzako orduak kontaturik egozan eta.

Oraindino sua amaitatu barik egoan eta Perutxuri ohe azpian begiratzea gogoratu jakon. Begiratu eban eta han egoan beste gizon bat hilda. Orduan gizon hila hartu eta ohe gainean ipini eban eta bera ohepean sartu zan. Sua ere amatatu egin zan.

Perutxu apur bat lasaitu egin zan baina ezin eban lorik egin ikusi ebana eta itxaroten eutsana pentsaturik.

Gaberdian Tartalo iratzartu egin zan, ur trago bat egin, kutxillo nagusiena hartu eta astiro-astiro joan zan Perutxu hiltera. Ohe ondora heldu zanean hamar kutxillakada emon

eutsazan rist! raust! eta hil ebalakotan barrero lotara joan zan.

Perutxuk ikusiak ikusirik, kontuz-kontuz barrero oheko gizon hila hartu eta ohepean itzi eban eta bera ohean sartu.

Perutxuk lehenengo sustua igaro eban baina ez ekian hurrengo goizean zer jazoko zan.

Esperantzea azkenengo galtzen dala gogoraturik Perutxu urteera barriak asmatzen ebilen.

Egungentia heldu zanean Tartalo goseak iratzartu eban eta ohepetik beste gizon hori harturik jaten hasi zan.

Perutxu ere iratzartu zan eta esan eutsan Tartalori:

—Egunon! Lo zelan egin dok ba?

—Ene! Nik ondo, eta hik? —itandu eutsan Perutxuri ikaraturik—.

—Nik ere ondo. Hor gaberdian bitxoren batek hamar bider edo pikatu jaustak baina bestela ondo.

Hau entzutean Tartalo berekautan pentsatzen hasi zan: «Perutxu gogorra da gero! Nire kutxillakadak bitxoren baten pikadak izan dirala dino. Zorrotzago egin behar izango ditut kutxilloak».

Tartalo kutxilloak zorrotzuten hasi zan zorrotzarri hotsesan baina Perutxu konturatu egin zan eta suari egurrak

botatzen ebilelakotan, hartzen dau ilenti nagusi bat eta pentsatzeko asti barik Tartalori begi bakarretik sartu eutsan.

Tartalo itsu geratu zan eta zarataka hasi, baina zelako zaratak, inoiz entzun ez diran modukoak.

Tartalo itsututa han ebilen eskuekin ardi artetik Perutxu bila eta halakoren baten harrapatu eban eta behesu gaineko eraztuna hatzamarretik sartu eutsan Perutxuri. Eraztun berezia zan, hitz egiten ekiana: «Hemen nago!». Horrela Tartalok ikusi ez, baina entzun egiten eban non egoan.

Perutxuk eraztuna kendu gura eban baina ezin. Orduan Tartalo kobako atakako harria kentzen hasi zan ardiak kanpora bota eta Perutxu hilteko.

Baina Perutxuk orduan eskegita egoan ardi narru bat hartu eta soinean ipini eban. Lau hankan ebilen ardi artetik baina bere eraztuna ixildu barik.

Tartalo kobaren ate-atean geratu zan eta ardiak pasatu ahala bere hanka artetik lepoan ikutzen eutsen.

Halakoren baten Tartalok eraztuneko «Hemen nago» entzuten eban bere ondoan baina eskuekin ezin eban Perutxu harrapatu danak lepoan lanea eukielako.

Lanadun guztiak ez ziran ardiak, Perutxu ere han egoan eta Tartalo konturatu orduko kanpora urten eutsan.

Orduan Tartalo arineketan hasi zan Perutxuren atzean baina, alperrik, Perutxuk ondo ezagutzen ebazan inguruko bideak.

Perutxu Tartalo despistatzeko itxasoraino joan zan eta itxas ertzeko haitz handi batera heldu zanean, hartu harri bat, jo eraztundun hatzamarra eta itxasora bota eban eraztun eta guzti.

Tartalok eraztuna entzuten eban legez, pentsaturik Perutxu han egoala, salto egin eban eta ito».

Harrezkero, Perutxurenekoak eta bere herritarrak bildurra galdu eutsien mendi eta basoari bake ta alaitasunean biziz euren eguneroko zereginetan.



Alborikara: Albotik.
Arrantza: Lotan egiten diran zarratak.
Asmatzen: Pentsatzen.
Atakan: Ahoan.
Atzerikara: Atze aldetik.
Ausartzen: Atrebitzen.
Bere biziak egingo dauala: Bizia galduko dauala.
Berekautan: Bakarrik pentsatzen.
Berezia: Espeziala.
Birrintu: Aplastata.
Burduntzi: Burdina luze bat.
Buru arina: Buru bakoa.
Deustak: Dok-dozu (zuka).
Egunsentia: Eguna.

Eraztuna: Anilloa.
Ertza: Bazterra.
Ez jakinean: Jakin barik.
Harratea: Kobako atea: harri-atea.
Igaro: Pasatu.
Ilienti: Behe suan erretzen dagoan egur bat.
Katutu: Moskortu.
Lau hankan: Eskuak eta hankak lurrean.
Ostikopetan: Hankapetan.
Otzara: Zimentzezko tresna.
Soinean: Gorputzean.
Zorroztarri: Zorroztuteko harri berezia.
Zorroztu: Afilatu.

Lamiñen hondamendia

Euskalerriko baserri baten bizi nintzan neure guraso, aitita-amama eta neba-arrebekin. Negua heldu zan eta egunak laburtu egin ziran.

Iluntzetan, ikastolako lanak amaitu eta gero, behesuren ondoan egoten ginan aitita eta amamaren kontuak entzuten.

Edurra egiten eban egun baten, sukaldean gengoan danok; aita artoak zuritzen, aitita indabak garantzen, ama aparia gertatzen, amama goruetan eta gu, hiru neba-arrebok, behesuaren ondoan esnea jagoten ganaz egin ez eian, eta bitarteka artaburruxekaz olgetan.



Orduan amamak esan euskun: «Esnea egosten dan bi-tartean gogora etorri jatan ipuin bat kontatu behar deus-tuet».

«Mendi arteko baserri polit baten neska gaztetxu bat bizi zan eta ikastolara oinez joaten zan bide zior ataju ba-tetik. Egun baten ikastolatik etxerantz joiala, erreka on-doan lamiñak ikusi ebazan orraztuten.

—Amama, zer da LAMIÑA? —galdetu geuntsan—.

—Ba, nik ez dot inoiz ikusi lamiñarik baina nire gu-rasoak esaten eusten emakume berezi batzuk ei zirala; garriz gora emakumeak eta garriz behera arrainak edo aha-teak, eta egun eguzkitsuetan erreka ertzetan uleak orraztu eta uleak orraztu egoten ei zirala, esnea ere asko gustatzen ei jakela, ederrak eta politak ei zirala baina pertsonak ikusiz gero uretara saltu egiten ei ebela, plisti-plastotsean.

Eta esaten ibili nazen legez, neskatxu horrek erreka ertzean lamiñak ikusi ebazanean, ixilik joan zan eurenga-nantz, katua sagua arrapatzen baino astiroago baina dana alperrik, lamiñak neskatxua ikusiz batera uretara sartu ziran.

Orduan neskatxua penaz beterik geratu zan lamiñak ezin ebazalako ikusi, baina halako baten lurrera begiratu eta urre gorrizko orrazi bat ikusi eban. Hartu orrazia eta etxera joan zan poz-pozik.

Gaba heldu zanean, neskatxua, beti legez, lo egiten joan zan urre gorrizko orrazi eta guzti eta pozik baino

pozago egoan. Baina eleizako «Aimariak» entzun eta gero, bere logelako leihoan zarata berezi batzuk entzun ebazan eta bildurtu egin zan, gorputz guztian pipiladurak urten arteraino.

Baina halan eta guztiz ere leihora jagi zan eta alde guztietara begiraturik ez eban ezer ikusi. Orrazia eskuetan eukan eta barriro sartu zan ohean. Handik lasterrera, erdi lo egoala, ostera ere zarata bereziak eta oraingoan abesti bildurgarri bat ere entzun eban:

«Neska lapur itsusia
hau da zure desgrazia
lo ondo egin gura badozu
emon guri orrazia».

Neskatxuak orrazia maite ebanez, entzunak entzunda ere ez eban nahi bere orrazia galtzea eta lorik egin barik joan zan ikastolara.

Egunez lasai eta erdi lotan egon zan gure neskatxua baina hurrengo gaba heldu zanean bardin jazo jakon; gaba guztian zarataka eta abestuten ebilzan lamiñak.

Neskatxua erdi zoraturik egoan eta gehiago pentsatu ere egin barik hartu urregorritzko orrazia eta ahal eban indar guztiaz bota eban leihotik eta berehalaxe amaitu jakozan zarata eta abestiak.

Harrezkero ez eban izan lo galdu gehiago gure neskatxa bildur-sartudunak.

Egun batzuk igaro ziran eta neskatxua, zuek legz, suntuondoan esnea jagoten egoala, tximiniatik LAMINTXU

izeneko lamiñatxu bat agertu ei jakon eta esnezaleak ziran legez, esan eutsan neskatxuari: «Txuria gora, txuria gora». Orduan neskatxuak, esneak ganaz egin baino lehen, esne ontzia su gainetik atera eta eskuetan hartu eban.

Orduan Lamintxuk esan eutsan: «Badakit urre gorrizko orraziarekin zer jazo jatzun eta lamiñen bildur zarala, baina tripakada bat esne emoten badeustazu, lamiña guztiak zelan galduko diran esango deusut».

Esan eta egin. Tripakada esnea egin eta gero Lamintxuk beste lamiña guztiak salatu ebazan esanez:

«San Juan egunean jaiotako zekor bikotearekin errekea tragastuten badozue, lamiña guztiak galduko dira».

Neskatxuak hau entzutean, etxekoei eta herriko guztiei kontatu eutsen.

Urteak joan eta urteak etorri, jaio ziran San Juan egunez zekor biak eta herriko guztien artean hazi ebezan janaririk onenak emonaz indartsuak izateko.

Zekorrak nágusi egin ziranean, hezi egin ebezan errekea ondo tragastuteko.

Udabarriko egun eder baten, herri guztia alkartu zan eta zekor bikotea buztartu, tragasa buztarritik lotu eta hergoienerantz joan ziran errekea hergoienetik helbarrenera tragastuteko.

Hasi ziran errekea tragastuten eta tragasaren hortzetan, odola dariola eta sokorru baten galdu ei ziran betiko lamiña guztiak».

—Amama, ze ipuin polita, baina zuk sinistuten dozu hori? —esan geuntsan—.

—Bai zera! Nik ez dot sinisten hori baina lehen eta orain ez da bardin.

Orain adelantu asko dago eta lehen baino gehiago dakigu, baina antzinakoak guk baino gitxiago ekien eta ipuinetan fiatzen ziran. Gaur oster a guk, egiak ez dirala jakin arren, ipuin zaharren bidez antzinakoen bizitza ezagutzen dogu eta alde horretatik interesgarriak dira.

—Amama, hau ipuin hau liburuetan dago? —galdetu geuntsan—.

Begiratu, euskerazko ipuinak asko dira baina zoritxarrez liburuetan batzuk bakarrik dagoz. Kontatu asko egiten dira baina idatzi gitxi. Pena handia da. Gu zaharrak gara baina zuok gaztetxuok honelako ipuinak idatzi egin behar zeunkiez, bestela betiko galduko dira.

Guk, hiru neba-arrebok, amamaren esana ondo bete dogu eta entzuten ditugun ipuin guztiak idatzi egiten ditugu, euskal kulturak betiko iraun daian.



Ahatea: Patoa.
Aimariak: Iluntzean eleizetan jotzen
diran kanpaiak.
Artaburruxe: Artoa garandu
Berehalaxe: Arin.
Berezi: Espeziala.
Bildurgarri: Bildur handikoa.
Bildur-sartua: Bildur handia
barruan, ikaratuta.
Buztarri: Lanerako ganadu bi alkar-
tzeko erabiltzen dan egurrezko
tresna berezia.
Buztartu: Buztarria jarri ganaduei.
Dariola: Jausten.
Ertza: Bazterra.
Esana: Kontsejua.
Galdu: Desagertu.
Ganaz egin: Ganetik jausi.
ondoren geratzen dana.
Garandu: Garauak apartatu.

Garriz behera: Garritik behera.
Goruetan: Haria egiten.
Helbarren: Herriaren beheko
partea.
Hergoien: Herriaren goiko partea.
Hezi: Domatu.
Hortza: Hagin.
Ikusiz batera: Ikusita arin.
Iraun: Jarraitu.
Itsusia: Motza.
Logaldu: Gabaz iratzarririk egotea.
Pipiladura: Gaztelezaz «carde de
gallina» deritzona.
Plisti-plastotsean: Uretan sartukera-
ko zarata.
Salatu: Txibatu.
Tragasa: Soloa lantzeko tresna bat.
Tripakada: Tripa bete.
Txuria: Esnea.

Lamiña ezkongai

Erreka polit eta garbi baten ondoko baserrian mutil gazte bat bizi zan. Langilea zan eta abere asko eukan bere etxean.

Egun baten goizean goizetik, harri kanpaiak jo baino lehenago solora joan zan bere idiekin lurra lantzen garia ereiteko.

Ilun egoan oraindino baina gure mutil gaztea lanaren ardurez aurrera joian idiei tira! tira! esanez.

Halako baten zarata batzuk entzun ebazan eta bildurtu egin zan, baina piztiren bat izango zalakotan aurrera egin eban.

Aurreratxuago joan zanean, iturri baten ondoan, lamiña pilo bat aurkitu eban.

Lamiñak ha mutil gaztea ikustean, danen arte heldu eta euren koba zulora eroan eban.

Mutil gaztea bildurkilik egoan eta bere burua galduta ikusten eban baekialako abemariatatik goizeko harri kanpaietara lamiñak indar handia eukiela.

Lamiñak bere inguruan dantzan ebilzala gure mutilari liñoaren abestia abestutea gogoratu jakon denpora pasatzeko, harri kanpaiak joteko denpora gitxi falta zan eta. Eta hasi jakien kantetan:

«Kantatu dagiguzan
liñoaren penak
ezpata honeen hotsean
izanik latzenak;
Alkar ondo hartuta
soiñua neurturik
gorputzeko nekea
izteko arindurik»...
...«Euskaldun neskatilak
nekeak harturik
eztabe honetako
gizonen beharrik;
Eurak dira ereila
liño-giariak
ehunla eta jostun
ta gorulariak».



Mutil gazteak liñoaren abesti hori abestu eta abestu lamiña guztiak poztu ebazan eta konturatu barik eleizako harri kanpaiak jo eben eta berehalaxe lamiña guztiak podere barik geratu ziran legez, koba zulo barruko uretara sartu ziran.

Orduan mutil gazteak bere burua libre ikusi ebanean inguruetara begiratu eban eta han bazter baten orraztuten egoan lamiña eder bat eskutik hartu eta bere etxera eroan eban.

Lamiñea polita zan baina oso triste egoan behesuren ondoan. Mutilak berba egiten eutsan baina lamiñeak ez eutsan txitik be erantzuten.

Goiz baten mutil gazteak esnea egosten ipini eban behesuan eta beste zerbait egiten hasi zan. Halakoren baten esnea ganaz hasi zanean lamiñeak esan eban: Txurie gora! Txurie gora!

Orduan mutil gaztea asko poztu zan lamiñeak hitz egiten ikasi ebalako eta lagun handiak egin ziran.

Gure mutil gazteak lamiña eder eta ule gorria emaztegaitzat hartu eban eta berarekin ezkontzeko bidean egoan.

Egun baten gure mutil gaztea mezara joan zan eta meza ostean bere lagunekin ardao batzuk hartzen egoala laguntariko batek esan eutsan:

—Kaixo aspaldiko! Badakik norekin habilan?

—Norekin ibiliko nok ba, neure emaztegaiarekin. Eta ez hori bakarrik, laster ezkondu egin behar joat berarekin.

—Hago ixilik! Zelan ezkonduko haiz ba? Badakik zelako neskea dan hori? Begiratu deusak oinetara?

—Ez, oinetara ez. Gona luze-luzeak erabiltzen jozak eta ez nok konturatu.

Ba begiratu heioak eta ikusiko dok. Neska polit hori ez dok neskea, lamiñea baino.

Mutil gaztea sinistu ezinik geratu jakun eta broma bat zalakotan egoan eta etxera joan zan egia ala guzurra zan jakiteko gogo handiaz.

Etxera heldu zanean bere emaztegai ule gorri ederrari oinetara begiratu eutsan eta egia zan, ez eukazan beste neskak eukezan oinak, ahatearen oinak baino.

Gure mutil gaztea ezer esan barik bere ohera joan zan eta negar asko egin eban.

Negar eta negar, disgustuaren disgustuaz egun gitxi barru hil egin zan gure mutil gazte maitemindua.

Hurrengo egunean ohitura zan legez hiletak egin eutsiezan gure mutil gazteari.

Herriko senide eta lagunen artean andariak aukeratu ebezan eta egurrezko eskilara baten eroan eben mutil hori eleizara.

Lamiñea ere maiteminduta egoan eta mutilari azken agurra emoteko hiletetara joatea pentsatu eban.

Lamiñak ezin ziran sartu eleizan horregaitik emaztegai zan lamiñeak mutilaren arimea ohostu nahi eban eleizan sartu baino lehen. Horretarako eleizarantzean emakune artean jarri zan burua makurturik.

Herriko jendea ez zan konturatu lamiñea euren artean joianik baina eleizara heltzen egozala abadea konturatu egin zan eta esan eutsen andariei:

«Eleiz-portalera heltzen garanean, ohitura dan legez geratu barik, sartu zaitzeze gorpu eta guzti eleizara barrura lamiñeak bere kapea bota eta arimea ohostu ez deion».

Esan eta egin. Heldu ziran eleiz-portalera eta arin baten sartu eben barrura jende guztia ahoa zabalik itzirik.

Jendeak ez ekian zer jazoten zan eta harriturik egoan baina laster konturatu ziran herriko guztiak lamiñearen abiadurea ikusi ebenean.

Emakume artetik, arin baino arinago eta zarataka etorren lamiñea. Hartu eban bere kapea eta aidean bota eban mutil gaztearen arimea ohostuteko gogoaz baina berandu zan. Abarearen esanaz mutila barruan egoan.

Lamiñea ezin zan sartu eleizara eta amorruz beterik, zarataka eta negarrez geratu zan eleizako ateetan sartu ezinda.

Ordutik hona herriko mutilak zuhurrago ibili ziran eta ez zan inor gehiago lamiñekin maitemindu.

Abemariak: Iluntzeko kanpaiak.
Abere: Animaliak.
Ahatea: Patoa.
Andariak: Hila lepoan eroaten
ebenak.
Arin baten: Oso arin.
Berehalaxe: Arin.
Bildurkilik: Bildur handiaz.
Ehunla: Liño-haria egilea.
Emaztegaia: Nobia.
Ganaz: Gaietik jausi.
Gorpu: Gorputz hila.
Gorulari: Haria egiten dauana.
Habilan: Zabilzan (zuka).

Harri kanpaiak: Goizeko kanpaiak.
Harriturik: Ikaraturik.
Hiletak: Entierrua.
Hotsa: Zarata.
Iostun: Josten dauana.
Jozak: Dautz (zuka).
Kantetan: Abestuten.
Liña: Haria egiteko bedarra.
Maitemindua: Enamoratua.
Ohitura: Kostunbrea.
Ohostu ez deion: Ez ohostuteko.
Pilo: Asko.
Txitik: Ezertxo.
Txurie: Zuria (esnea).

Marti-oilarra eta Prakagorriak

Egun baten, mutiko kaskondua nintzala, gurasoek Bilbo eta itxasoa ikusten eroan ninduen.

Itxasoa ikusi, funikularrez Artxandara igon eta handik goitik aitak bere umetako Bilbo azaltzen eustan non zer egoan eta zer ez egoan esanaz.

Halako baten aitak, esku bata Enkarterrietarantz jasorik badinost:

—Ene! Aitu, han aurreko mendi ondoan Kastrejana dago eta han antzina «PRAKAGORRIAK» harrizko zubi bat egin ei eben.

—Zer esan dozu, Prakagorriak?

—Bai, PRAKAGORRIAK.

—Eta zer edo nortzuk jatzuzan ba?

—Egia da, jakina; zuk ezin jakin txikia zara eta.

Ba, begiratu; ipuin zaharrak dinoskunez, antzina deabrua eta bere laguntzaile «PRAKAGORRIAK» nahinondik ibilten ei ziran kristinauen arimak eurenganutzen eta beharrian gorrian aurkitzen ziranekana joaten ei ziran.

Gure Euskalerriko baserritarrak sarritan lan gogor eta luzeetan sarturik egoten ziran, ganaduak zirala, solo-beharrak zirala, basoko ekintzak zirala... beti egoan egon ere lanen bat gure baserrietan.

Euskaldunak gizon onak eta langileak genduzan, sinismendunak eta fede handikoak.

Baina batzuetan banakaren batek beharrian handiren baten eraginez edo, txarto eginda egoala jakin arren, deabruaren laguntza eskatzen ei eben euren lanak egiteko.

Deabrua beti ei egoan prest laguntzeko, baina laguntzaren truke arimea eskatzen ei eutsen.

Arimea gauzarik handiena zan baina halan eta guztiz ere, larrialdietan, batek baino gehiagok eskeintzen ei eutsan arimea deabruari laguntza truke.

Baina gero izaten ziran izatekoak! euskaldun batek bere arimea galdurik ikusten eban bakoitzean, burua galdu

eginik joango zan eleizgizon bategana eta arteak ere ez eban hartuko barriri arimea salbatu arte.

Eleizgizonei eskerrak, beti aurkitzen ei eben zeozer euren arimea betiko galdu ez egiteko.

Eta, hor, Kastrejanan ere, gure aititak eta kontatzen euskuenez hauxe jazo ei zan:

Egun baten, Kastrejanako neska gazte eta polit bat Bilbo zaharreko jaialdi batera joan zan.

Jaiak hain ziran ederrak eta hain egozan ondo, kon-turako barik denbora joan eta berandu egin jakon.

Arin ere arin joan zan etxerantz baina etxera orduko ia gautu egin jakon, egin behar, ia iluntze edo gaulendi-rarte dantzan eragoion eta.

Larriturik heldu zan etxera eta helduaz batera gogor egin eutsien gurasoak abemarietako kanpaiak jo eta gero heldu zalako.

Neskeak, apal-apalik hartu ebazan gurasoen esanak, baina bere benetako ardurea iturriko uretan joatea zan; iturria urrun egoan eta ia ia guztiz gaututa.

Nahi ta nahi ez iturriko ura ekarri behar zan eta nes-keak gehiago pentsatu barik, jarroa hartu eta txapa-txapa abiatu zan iturrirantz.

Erreka ertzetik joian neskea arnasestu baten eta ma-



galotsean. Iturria errekez bestaldean egoan eta zubia oraindino urrun.

Geroago eta larriago joian, arin egin gura baina bidea luze, eta joanago eta artetago, ha zan larrialdia!

Neskea ederra eta polita bazan ere, errukarri aurkitzen zan eta erdi zoraturik, negar baten eragoion.

Halakoren baten, zer egin ez zer esaten eban ere ez ekiala, hasi zan esaten ahots dardartsu eta berbaltu eta guztizko batez:

—«Inpernuko deabruak ez deuste egingo hementxe artzubi bat iturriko joan-etorria arinago egiteko?».

Esan baeban ze, berehala agertu jakon deabrua kabalero bat legez praka gorriekin eta zaldi baten gainean.

Neskeari odolak ere ur egin jakozan zer jazoko ete zan pentsatuz eta deabruak, hurreraturik esan eutsan:

—Zubia nahi badozu, egingo jatzu, baina horretarako zeure arimea emon behar deustazu!

Neskeak orduan larritasunaren larritasunaz non egoan ez zer esaten eban ere ez ekiala, baietz erantzun eutsan.

Baietz esan eban une berean PRAKAGORRIZ bete zan inguru guztia eta deabruaren agindupean harrizko zubi bat egiten hasi ziran.

Han alkartu zan elia, dana zan PRAKAGORRIA, ho-

na begiratu, horra begiratu, hara begiratu dana PROKA-GORRIA.

Danak eukien harri-tresnaren bat eskuetan. Han sortu zan harriotsa, mailluotsa eta zaratotsa! Zekula ez ei zan ikusi hainbeste hargin batera!

Deabruak hainbesteko laguntza ikusirik agindu gogor batez esan eutsen bere laguntzaileei:

«Hargin batzuk hemen eta beste batzuk hortik zehar dagozan haitzetara, arin! Beste guztiok harritan, eskuz zein lepoz, baina danok lanera, txitik egin barik!». Aurrrera mutilak!, neska horren arimak egin jok eta!

Ha entzutean, Prakagorri guztiak banandu egin ziran. Batzuk Oiz mendirantz, beste batzuk Dimako haitzerantz eta geratzen ziranak Gorbea ingururantz.

Danak ei ziran indartsuak eta batak baino besteak harri handiagoak ekarten ei ebezan. Kontuak atera zelako indarra eukiko eben, Prakagorri koxoren batek ere bos-tehun arroako harria ekarten ei eban seguru eta.

Ha zan ikustea! Sinistu ezinekoa! Une batetik bestera zubi zatiak eginda eta gitxien faltan dana egiteko.

Neska, bere senera etorri zanean eta zubia hain aurre-rik ikusi, jaurti eskuetak jarroa eta orpoetan har barik herriko parrokoarengana joan zan eta esan eutsan.

—Jauna!, jauna! Baleki berorrek zer egin dodan!

—Zer alabatxua?

—Honantxik eta honantxik deabruari arimea eskeini deusat.

—Hori egingo zenduan ba? Zuk egin dozu egitekoa! Holakorik!

—Bai jauna, bai; horixe egin dot baina ondo damutu-ta nago! Lagunduko baleust berorrek!

—Tira ba, tira ba; holan hobeto. Baina ea, ez dago denbora galtzerik. Nik ezin deusat dana konpondu baina zure arimea salbatu nahi badozu hauxe egin behar dozu beste mutilok zubia amaitu orduko:

«Martian oilarragaz ibilitako oiloaren arraultzatik jaiotako oilar bat aurkitu behar dozu eta zubia egin orduko «kukurruku» egiten badau, salbauta zagoz».

Parrokoa, gauzak arintzeko, kanpandorrera igon eta kanpai hotsean hasi zan, laguntza-kanpaiak jotzen.

Herritar guztiak elezportalean alkartu ziran zer zan edo zer ez zan jakiteko eta laguntzeko.

Parrokoak kanpaiak joteari utzi eutsanean, kanpadorretik bertatik esan eutsen:

—Neska horren arima arriskuan dago eta berak ondo daki zelango oilarraren «kukurrukua» entzun behar dan



bere arimea salbatzeko. Zoaze beragaz eta ea danon arte aurkitzen dozuen oilar hori!

Joan ziran ba danak, neskea aurretik zala, baserririk baserri oilar berezi haren bila. Handik, hortik, hemendik aurkitu, aurkitzen ebezan oilarrak, baina ezin eben aurkitu parrokoak esandako modukorik.

Bestaldetik Prakagorriak zubia aurrera erorien eta ez jaken askorik falta guztiz amaitzeko.

Neskea arteak ere ezin eban hartu. Larri baino larriago egoan, egotekoa zan izan ere, bere arimea arriskuan egoalako.

Hilargiak geroago eta argi handiagoa eukan, zubian jo ta ke Prakagorriak, herriko guztiak zoraturik baterik bestera, txakurrak guztiak ahausika, oilarrak guztiak kukurrukuka, ...baina benetako oilarra falta!

Deabrua, irribarreka, geroago eta pozago egoan eta ia-ia neskearen arimea beretzakotzat eukan eta zubia ari-nago amaitzeko bera ere harritan joan ei zan Oiz mendira.

Baina hasiak egina dirudiela eta eginak urre gorria, ia esperantza guztiak galdurik egozala, ez dabe aurkitzen ba parrokoak esandako moduko oilar bat!

Oilarra aurkitzea eta kukurruku egin erazotea, dana zan bat. Eskurik esku oilar hori, ha zan poza!

«Kukurruku egin eban, bai, «kukurruku» indartsu bat, neska, herritar eta Prakagorri guztien artean.

Artzubia, harri baten faltan geratu zan. Prakagorri guztiak alde egin behar izan eben oilarra entzutean.

Deabruak berak ekarren azkenengo harria Oiz menditik Kastrejanarantz eta bidean etorrela entzun eban «kukurukua». Une beratan podere barik geratu zan eta lepoz ekarren harri handi hori bertanbera utzi behar izan eban.

Deabrua sutan geratu zan zubia amaitu ezinda, eta amorruaren amorruez, eukan indar guztiaz jo eban azkenengo harria eta bost hatzamarrak markaturik utzi ei eutsazan seguru, eta esaten dabenez, gaur ere, han ei dagoz hatzamar markok.

—Aita, ze ipuin polita! Baina gaur ez da egongo Prakagorriak ezta?

—Ez. Lehenagokoak sinistuten eben honango gauzetan baina gaur ez dago lehengorik. Gaur beste era bateko Prakagorriak dagoz beste era batera jantzita, bai, gorrotoz jantzita, armaz jantzita, ezbardintasunez jantzita... Bakea eta maitasuna dira gaurko Prakagorrien aurkago oilarra. «KUKURUKU»!



Abemariak: Iluntzeko eleizako kan-
paiak.
Abiatu: Joan.
Arimak egin jok!: Arima galdu.
Arnasestu: Arnasa handia.
Arriskuan: Peligruan.
Arroa: 11 kilor'ardi.
Arteak ezin hartu: Oso urduri.
Arteak hartu: Lasaitu.
Artzubi: Harrizko-zubia.
Aurkako: Kontrako.
Banaka bat: Bat edo beste.
Banandu: Separatu.
Berbaltu: Tartamuta egin.
Berehala: Oso arin.
Bertanbera: Bertan.
Beste mutilok: Prakagorriak.
Egin erazo: Behartu, erazi.
Ekintza: Lana.
Elia: Gente asko, errebañua.
Eragoion: Ekiten eutsan.
Ertza: Bazterra.
Eskeini: Opatu.
Gaulendi: Ilunabar.
Gautu: Gau egin.
Gogor egin: Gedar egin, zarata
egin, haserre egin.

Gorria: Handia.
Hargin: Harria lantzen dauana.
Harritan: Harriak ekarten.
**Hasiak egina dirudi, eginak urre
gorria:** Esacra.
Hotsa: Zarata.
Izatekoak: Arazoak.
Jatzuzan: Ziran (zuri).
Jaurti: Bota.
Jo ta ke: Lan eta lan.
Kaskondua: Hazitxua.
Magalotsa: Gonaren zarata.
Nahi ta nahi ez: Derrigor.
Nahinondik: Edozein lekutatik.
Negar baten: Negar eta negar.
Odolak ur egin: Ikaratu.
Orduko: Heldu orduko.
Orpoetan har barik: Arin.
Seguru: Antza.
Senera: Konortera.
Sutan: Haserre.
Truke: Ordez.
Txapa-txapa: Arin.
Txitik: Hitzik.
Une: Momentu.
Uretan: Ura ekarten.
Zeozter: Zerbait.



Juan Manuel Etxebarria Ayesta, Zeberiokoa,

1948 - XI - 2an jaioa dogu. Filosofiararteko ikasketak egin ondoren Derioko Seminarioan, Magisteritza egin euskun. Karrera barria zabalduz batera, Euskal Filologian lizentziatu jakun Deustuko Unibertsitatean,

ohorezko matrikula ateraz. 1988tik "Cum Laude" eta guztizko doktorea dogu Euskal Filologian "Zeberioharaneko euskeraren azterketa etno-linguistikoa" ikergaiaz.

Gaur egun, Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedratikoa da eta Deustuko Unibertsitateko euskal Fonetika eta Fonologiako irakasle doktoraduko kurtsoa be azaltzen daualarik. Hamabost urteokaz, On Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapeko Bizkaiko ETNIKER taldekidea dogu. Euskeraren aholku batzordean be parte hartu dau eta Derioko Udako Ikastaroan be euskera bizia aztertzeko oinarriak eta metodologia irakasten dario.

Guzti honen ondoren, idazlea be badogu. Batez ere hiru arlo landu ditu: euskal linguistika, etnografia barruan etno-testoak eta ipuingintza Bizkaiera gaurkotuan.

Ipuingintzan asko idatzi deusku, (dozena bat liburutik gora) batez be gaztetxuentzat eta idazten dara-goio.

Lehendik be bai, baina batez be doktorego tesia burutu dauanetik, argi be argi ikusi dau euskera biziak daukan garrantzia euskeraren etorkizunerako. Euskalkiak **bizi** dira eta jakina, Bizkaiera be bizirik dago bere aberastasunean.

Juan Manuelek (Manuk) honeetan ipuinotan Bizkaiko herri-euskera bizia hartu dau eta gaurko Bizkaiera literaria jaso etorkizunera bideratzeko batasun zabal, aberats eta zentzundun baten bidean.